



ERABAKIA,JAUNAK, ARABAKO FORU ALDUNDIKOZUZENDARITZAREN TITULARRAK, EGINDAKO KONTSULTAREN HARIRA. GAIA: ARABAKO BATZAR NAGUSIEN BATZORDE IRAUNKORRAREN 2020KOKO BILKURAN JAUNAK IZANDAKO JOKABIDEAREN ZUZENTASUN ETIKOA.

I. KONTSULTA

1. 2020ko maiatzaren 7an, interesdunak, Arabako Foru Aldundiko zuzendariak, posta elektronikoa igorri zion gobernukideen eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko goi karguen Etika Publikoko Batzordeari, eta kontsulta egin zion Arabako Batzar Nagusien Batzorde Iraunkorrean izan zuen jokabidearen zilegitasun etikoari buruz. Izan ere, jauna modu erabat desagokian mintzatu zen, zoritxarreko iruzkina egin baitzuen taldeko prokuradoreak, ...k, hitza eskatu zuenean.

.... jaunak, aurkeztutako idazkian, adierazi zuen esan zituen hitzak ez zizkiola aipatutako prokuradoreari esan zuzenean eta ez zela konturatu mikrofonoa irekita zegoela. Gainera, jaunak barkamena eskatzeko idazkia bidali zion egun hartan bertan ... andreari eta batzordeburuari eta gainerako kideei, eta, gainera, hainbat aldiz deitu dio ... andreari barkamena eskatzeko.
2. Kontsultarekin batera, interesdunak Batzorde Iraunkorreko buruari eta gainerako kideei bidalitako testua igorri du.
3. Iritzia adierazten da interesdunak jakin nahi duelako, zuzendaria izanik, ea bere parte hartze desagokia dela eta nola edo hala urratu duen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa, Diputatuen Kontseiluaren 477/2015 Erabakiaren bidez onartua eta urriaren 22ko 654/2019 Erabakiaren bidez berretsia.

II. APLIKAZIO ARAUAK

1. Diputatuen Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bidez onartu zen eta legealdi honetan 654/2019 Erabakiaren bidez berretsi, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa (GOKE, aurrerantzean), foru sektore publikoan printzipio etikoak sendotzea babesteko eta horretan buru izateko.



Kode horretan, kargu publikodunen jokabideari buruzko zenbait printzipio orokor jaso dira. Printzipio horiek zintzotasunaren eta gardentasunaren inguruan daude antolatuta, eta hiru arlotan proiektatzen dira: erakunde kalitatean, herritarrekiko harremanetan eta norbere etika eta jokabidean.

2. Foru kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 19.3 artikulua Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko gobernuko kideen eta goi karguen Etika Publikoko Batzordea izatea aurreikusten du, bai eta batzorde horren egitekoa aipatutako kodea bete dadin zaintzea izatea ere.

Horiek horrela, GOKEn zazpigarren apartatuan Etika Publikoaren Batzordea sortu zen, organo independente gisa, kode horretan araututako jokabide arau, printzipio eta balioak bultzatu, sustatu, haietaz arduratu eta beteko direla bermatzeko, bai eta erakundearen irudia kaltetu lezakeen arau hauste edo okerreko jokabide orori aurrea hartzeko ere.

3. Etika Publikoko Batzordearen eginkizunen pean izango dira honako hauek, dela hautatzen edo izendatzen diren unetik bertatik aurrera automatikoki, dela kodea onartu aurretik izendatu ziren kargudunek kontrakorik adierazi ez dutelako: foru gobernuko kideak; Arabako Foru Aldundiaren, bere erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen zerbitzura diharduten goi kargudunak eta gainerako zuzendariak; eta Gobernu Kontseiluak edo, foru sozietate publikoetan, organo eskudunek hautatutako beste pertsona batzuk, nagusiki pribatuak diren eta kapitalaren zatirik handiena pribatua duten erakundeetan edo hainbat herri administrazioen edo dagokien sektore publikoen kontrolpean dagoen beste edozein erakundetan —gaur egungo GOKeri atxikitakoetan— zuzendaritza edo administrazioako karguren batean aritzeko.

Hori dela eta, GOKE aplikagarri zaio eskatzaileari.

III. ETIKA PUBLIKOKO BATZORDEARI IRITZIA EMATEKO AURKEZTU ZAION GAIA

1. Eskatzaileak Etika Publikoko Batzordearen irizpenaren berri izan nahi du Arabako Batzar Nagusien Batzorde Iraunkorraren 2020ko ...ko bilkuran izan zuen parte hartze ezegokiari buruz.

Bidalitako idatzian adierazi duenaren arabera, egun hartan bertan, idatzi bat igorri zion foru ganbarako lehendakariari eta, hartan, egindako akatsa onartu zuen eta barkamena eskatu zuen. Horrez gain, hainbat aldiz deitu zion ... andreari, barkamena eskatzeko zuzenean.

2. Kargu publikoek GOKEn ezarritako arauen arabera jokatzeari dagokionez, batzorde hau ez da ahalmen mugaezinak dituen organoa; haatik, batzorde honen egitekoa askoz ere



xumeagoa da, eta ez da arduratzen aztertzen dituen gaiak oro har etikoak diren ala ez erabakitzeaz, baizik eta jokabide horiek aipatutako kodean jasotako balioen eta printzipioen aurkakoak diren adierazteaz besterik ez. Batzorde honek ez du, inolaz ere, gaitasunik neurri zehatzak hartzeko, ezta proposatzeko ere, benetan frogatuta ere etika eta jokabide arauen aurka jokatu dela edo arau horiek ez direla bete.

3. jaunak aurkeztutako idatziaren arabera, zoritxarreko iruzkina ez zion zuzenean egin une hartan lehendakariari hitza eskatzen zion prokuradoreari, eta Batzorde Iraunkorraren bilkuran izandako urduritasunak eta tentsioak eragindako erreakzio justifikaezina izan zen.

Egia da adierazpena andrea hitza eskatzen ari zenean egin zuela, baina interesdunak aurkeztutako idazkian azaltzen duenaren arabera, zoritxarreko iruzkina ez zegoen, inolaz ere, andreari zuzendua eta batzordekideei barkamena eskatzeko idazkia aurkeztu zuen.

Hala eta guztiz ere, gogorazi beharrean gaude GOKEren bosgarren apartatuko 1. puntuan jasotzen dela jokabidearen irizpide nagusia pertsonen begirunea erakustea izan behar dela, eta, horrez gainera, herritarrekin gizalegez aritu behar dela eta ezin dela sartu arerio politikoen bizitza pribatuan.

4. Dena dela, ebazpen hau hartzean bada alde batera utzi ezin den zerbait: jaunak iruzkina egin egin zuela, grabatuta baitago eta jaunak berak hala onartu baitzuen Batzar Nagusiei eta batzorde honi bidalitako idazkietan.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago GOKEren seigarren apartatuko 3. puntuan, foru kargu publikoen ekintzak eta jokabideak modu positiboan bideratzea helburu duten jokabide etikoko printzipioen b) letra honako honi buruzkoa dela: norberaren karguan eta eskumenetan aritzean, jardun publikoan zein pribatuan, ordezkatzen duten edo lanean ari diren erakundearen ospea, duintasuna eta irudia hobetzen laguntzea.

Horren helburua da ekintza publikoak zein pribatuak bat etortzea kodean aurrez ezarritako balioekin, printzipioekin eta jokabide estandarrekin. Horren guztiaren azken xedea da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, eta Arabako Foru Aldundiaren eta foru sektore publikoko gainerako erakundearen erakunde irudia zaintzea.

Horregatik, foru kargudunen erakunde harremanetan eta harreman pertsonaletan, izan beste kargudun publiko batzuekin, langileekin edo herritarrekin, nagusi izan behar dira errespetua, gizalegea, begirunea, zuzentasuna, enpatia eta lasaitasuna, baina jaunak begirune falta adierazi zuen esamoldea erabili zuen, batzordearen bilkuran bizi izandako tentsioaren ondorioz, eta hori eragotzi beharra zuen.

Foru kargu publikoek maila berezia dutenez eta erakunde publiko baten menpe daudenez gero, erakusten dituzten balioek eta izaten dituzten jokabideek eragina dute bizitza pertsonaletik harago, eta ondorioak izan ditzakete erakundeetan eta herritarrek erakunde



horiei buruz duten ikuskeran. Horien balioa eta prozedura parlamentario eta demokratikoa zaindu behar da, eta haien eraginkortasuna indartu, eta foru erakundeen irudia kaltetu eta herritarrek haiengan duten konfiantza gutxitu dezaketek ekintzak saihestu.

Horiek horrela, eta aztertzen ari garen gaiari dagokionez, interesdunak Batzorde Iraunkorrean izandako zoritzarreko parte hartzeak erakundearen irudia kaltetu du, beharbada, eta GOKEn jasotako etika eta jokabide printzipioak bete izan balitu, hori eragotzi zitekeen.

Hala eta guztiz ere, positibotzat jotzen dugu jaunak berehala erreakzionatu izana eta egun hartan bertan batzordekideei barkamena eskatu izana, bere jokabidea zoritzarrekoa izan zela konturatu ostean.

5. Horregatik, Etika Batzorde honek uste du interesdunak „Arabako Batzar Nagusien Batzorde Iraunkorrarenko bilkuran egindako iruzkina egin zuenean, mesprexatuz jokatu zuela, ez zuela jokatu Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargudun publikoen erakundearen integritate sistema errespetatuz, eta GOKEn jasotakoaren aurka jokatu zuelako.

Horregatik guztiagatik, GOKEren zazpigarren apartatuko 6. puntuan aipatzen diren tresna telematikoak erabiliz, Etika Publikoko Batzordeak, aho batez, honako hau ebatzi du:

EBAZPENA

- I. Interesdunak, Arabako Batzar Nagusien Batzorde Iraunkorrarenko bilkuran egin zituen adierazpenak egin zituenean, ez zuen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernu onerako kode etikoaren arabera jokatu; hain zuzen ere, ez zuen jokatu balio etikoekin lotutako jokabide arauari buruzko bosgarren apartatuko 1 eta seigarren apartatuko 3 b) artikuluen arabera.
- II. jaunari gomendatzen diogu bere iritziak eta erreakzioak adierazteko moduan eta tonuan nagusi izan daitezela errespetua, gizalegea, begirunea, zuzentasuna, enpatia eta lasaitasuna, eta ez dezala zoritzarreko iruzkinik egin edota ez dezala foru kargu publikoen jokabidea gidatu behar duten printzipio etikoen aurkako jokabiderik izan.

Cristina González Calvar
BATZORDEBURUA

Elena Ferreira Sebastián
BATZORDEKIDEA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordea

Comisión de Ética Pública de los miembros del Gobierno y altos cargos del sector público foral del Territorio Histórico de Álava

**Javier GaraizarCandina
BATZORDEKIDEA**

**Fernando Salazar Rodríguez de
Mendarozqueta
BATZORDEKIDEA**

Gasteiz, 2020ko maiatzaren 12a